



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

---

# Soziolinguistika albistaria

---

**103. zenbakia**

2021eko ekainak 25 – uztailak 8

---

## Soziolinguistika Klusterreko albisteak

### **Ahozko komunikazioaren irakaskuntza, besteak beste, Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) Nazioarteko Kongresuan**

Interakzionismo Sozio-Diskurtsiboaren (ISD) VII. Nazioarteko Kongresua izaten ari da egun hauetan (uztailaren 5etik 7ra) Donostian. Soziolinguistika Klusterrak Euskararen ahozko didaktikaren erronkak (S10) sinposioan parte hartu du, bi aurkezpenetan.

### **Hizkuntza aktibazioaren gakoak eta prozesua EHUn uda ikastaroetan**

Euskaltzaleen Topagunearen ekimenez eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren laguntzarekin, Hizkuntza gutxituen aldeko aktibazio soziala: egoera eta etorkizunerako gakoarikastaroen egiten ari da uztailaren 7 eta 8an UPV/EHUn uda ikastaroen baitan.

### **Kafe Garaia 01 - Olatz Altuna Zumeta (elkarrizketa)**

[Noaua] NOAUA! aldizkariaren lehen zenbakia 1996ko ekainaren 28ko datarekin plazaratu zen. 25. urteurrenean, 'Kafe garaia' izeneko atala jarri dugu martxan. Lehen kafea Olatz Altuna Zumetarekin hartu dugu. NOAUA!ko lehen zuzendaria izan zen, Soziolinguistika Klusterreko ikerlari-teknikaria da egun.

---

## Ikerketak

### **Apaldu egin da DBHn euskararen eta matematikaren duten gaitasuna**

[Berria] Bi urtean murriztu egin da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen hizkuntzarako kompetentzia euskaraz, baita matematikakoa, gaztelerakoa eta ingelesekoa ere. Ondorio argiak atera daitezke Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikasleek ebaluazio diagnostikoan.

### **Protection and promotion of regional or minority languages: promising practices across Europe 2015-2020**

[Council of Europe] There are many initiatives, programmes and interventions offered by states and non-governmental bodies across Europe that support the implementation of the right to employ regional or minority languages in several fields of activities by the speakers.

## **Jardunaldi, hitzaldi eta ikastaroak**

### **Mintegia: 'Euskararen erabilera normalizatzeko Legearen 40. urtearen atarian'**

[Euskaltzaindia] Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolaturiko mintegi honen bidez hausnarketarako, esperientzien trukerako eta elkarlanerako foro edo bilgune bat eskaini nahi da, sentsibilitate eta ikuspegi ezberdinak bilduz.

### **Abian da izena emateko epea Euskararen Jabekuntza, Kudeaketa eta Hizkuntza Praktikak XXI. Mendean Masterrean**

[Irekia, Eusko Jaurlaritza] Euskararen biziberritze prozesuan sortu diren ezagutza eta metodologia berrietan trebatzeko masterra jarri du martxan UPV/EHUko Euskara Institutuak, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak sustatuta.

### **Osasuna eta Hizkuntza IV: Ikerketatik ezagutzara**

[UIK] Osasuna eta hizkuntzari buruzko IV. uda ikastaroa izango da uztailaren 15 eta 16an. Bilboko Bizkaia Aretoan (presentziala) eta Zoom bidez (telematikoa). Aurtengo edizioan ikerketa izango da ikastaroaren gai nagusia.

### **Udalerrri euskaldunetarako garapen estrategiei buruzko formazio saioa antolatu du UEMAK, uztailaren 20an**

[UEMA] Udalerrri euskaldunei eusteko modurik eraginkorrena udalerrri euskaldunak garatzea delakoan, UEMA aspaldidanik ari da nabarmentzen garapen estrategien garrantzia. Horrela, formakuntza saio honetan Joseba Garmendia ekonomialaria eta EHUko irakasleak udalerrri euskaldunetan garapen estrategiak eraiki ahal izateko marko teorikoa aurkeztuko du.

### **Challenge of ensuring national minority rights taking new forms, tools to address it adapting**

[Council of Europe] Achievements and future challenges in protecting national minority rights has been the focus of a high-level conference in Strasbourg organised by the Council of Europe under the Hungarian Presidency of the Committee of Ministers.

---

## Liburuak eta artikulu zientifikoak

### **Dragon Ball on the Basque public TV: influence on viewers' language attitudes and practices**

[Journal of Multilingual and multicultural development] Dragon Ball was highly popular among different generations in the Basque Country. The anime TV series was broadcast in Galician, Catalan and Basque practically at the same time in 1990.

### **The speakers of minority languages are more multilingual**

[International Journal of Bilingualism] The paper tests the hypothesis that the larger the population of language speakers, the smaller the number of second languages mastered by these speakers.

### **Dossier «El català al món digital»: una visió polièdrica d'una realitat inquietant**

[Pensem.cat] Tot i que en el pla teòric el nou món digital no presenta barreres per a les llengües, les economies d'escala conviden a retallar despeses per augmentar beneficis. En aquest context..., quin futur li espera, al català? | Nou dossier de Pensem

*Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.*

---

## Bestelako albisteak

### **Iñaki Larrañaga euskaltzalea hil da**

[Berria] Euskalgintzari estuki loturik aritu izan zen Iñaki Larrañaga (Lazkao, Gipuzkoa, 1933 - 2021), gazte-gaztetatik. Fraide, soziologo eta soziolinguista zereginetan aritu izan zen urteetan. Gaur hil da.

### **Gaindegiak bertan behera utzi du bere jarduna, arazo ekonomikoak direla eta**

[Berria] Euskal Herriko osoko datu sozioekonomikoen berri izateko aukera galduko dute euskal herritarrek. Izan ere, Gaindegiak iragarri du behategiaren jarduna eten egin duela ekaina amaitzearekin batera, zailtasun ekonomikoen ondorioz.

### **"Ondo dago hizkuntzak jakitea, baina hitz egin... euskaraz, ezta?"**

[ARGIA] Sorterriko hizkuntzaz hitzaldi egitera etorri zen Gasteiza, baina hitzari lotu zitzaion ordukoxe ohartu ginen hura ez zela izozmendiaren punta besterik. Ginea Bissaun jaioa, Senegalen hazia, Euskal Herrira ezkondua...

## Arawi Ruiz: "Hizkuntza minorizatuak hitz egiten ditugunok mundua beste modu batean ulertzen dugu"

[Euskaraba] Arawi Ruiz quichuak eta Miren Uriarte euskaldunak elkarlanean irabazi dute hizkuntza minorizatuen proiektuen e-GA lehiaketa. Lehiaketaren koordinatzaile Beñat Garaio eta Arawi Ruiz quichua izan dira Radio Vitoria-ko 'Euskara Araban' saioan.



SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA

Euskara biziberritzeko  
ikergunea

### Babeslea:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

### Bazkide partaidea:

**emun**<sup>®</sup>  
Euskara eta  
berrikuntza soziala